

ELKARRIZKETA MIKEL ALBERDI · GEHIGARRI BEREZIA BEROGAILUAK · KIROLA
BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA PROBAKO ELGOIBARTARREN SAILKAPENA

BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2007eko azaroaren 23a/1A · Urtea/384 · Zkia


BEROGAILUAK



GEHIGARRI BEREZIA

MIKEL ALBERDI 17 URTE KARTZELAN EGIN OSTEAN, BERRIRO ETXEAN DA

“Nire buruan, herri hau aurrera ateratzea eta beste preso guztiak etxeratzea dago”



Ibokuak se

- > Bizilagunen-elkarteko arazoek konponketa
 - > Ebcea berritzeko dirulaguntzak bideratzea
 - ▶ Diru kontuen gestioa
 - > Berrikuntzetarako aurrekontuen prestaketa
 - > Aholkularitza lanak
 - > Obra lanen jarraipena eta gestioa
- Profesionalik onenak ditugu.

st 943 740 673
230 Posta kutxatila
20870 ELGOIBAR

Jar zaitez
gure eskuetan



**ARAZOAK BEREHALA KONPONDUKO DIZKIZUGU.
HOBETU EZAZU ZURE BIZI KALITATEA!**

Z E Z

Lkq



IDE

AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era

1 5:00etatik-20:30era



10'''

Ego Gain, 4 behea
(San Andres paseafektik)

Tel. 943 203 455 20600 EIBAR



Hankak gurutzatuta

Elizan hankak gurutzatzea bekatua zela sinetsita bizi ginen umetan. Sharon Stonek Instinto Basico pelikulan hankak gurutzatu zituenean ulertu nuen zergatik. Berez hain sinplea eta eroso den keinuak sinbolismo ikaragarria eta anitza dauka. Boterea noren esku dagoen adieraz dezake. Stone hitzak harria esan nahi du ingelesez. Sharon Stonek izotza bere ikur bihurtu zuen, eta gizonezkoak zeinen hauskorrak diren erakutsi zuen. Gurutzatzen diren hanken aurrean urtu egiten diren harezko mendiak.

(I)
e n
3 -
O
O
N
(:)

Orain gutxi, Sirktoy izeneko Turkiako nekazal herri txiki batean emakumeek bankak gurutzatzea erabaki dute. Dirudienez, urteak zeramatzatzen kilometro luzeak eginaz potzu batetik ura herrira ekartzeko. **Giltzurrunak** hondatuta, nahikoa dela esan eta gerra aldarrikapena egin diete gizoni. Hauek ez badituzte ubideak eraikitzen edateko ura etxeetaraino iristeko, emakumeek ez dituzte hankak berriz irekiko, "urik gabe, ez dago sexurik". Esan eta izan. Urteetan ezinezkoa zena aste gutxitan lortu dute eta hasi dira eraikitze lanak. Busti nahi duenak busti egin behar du.

- Lehenxego ere esan dut gizonak erraz urtzen direla.

Jasone Osoro



Aibiltxuri

BARREnek ematen didan aukera hau aprobetxatuz, gaur Albitxuri inguruak dakarzkidan oroitzapenak idaztea bururatu zait.

Albitxuri, gu umeak ginenean, baserri ederra zen benetan; etxe polita eta ondo egina. Etxearen sarreran zubi bat zegoen atari-barrura sartzeko eta eskubialdean sukaldea; aurrealdean sabaia eta ezkerretara logelak; behean, berriz, korta.

Etxe inguruan lursail handiak; soro-zelai, sagasti eta baso. Bertako bizilagunak ere gogoan ditut: Martin, Isidra, Inaxi, Manuela, Eusebio, Martintxo... euskaldun jator eta baserriko lanetik bizi izan ziren baserritar apalak.

Behin hasi ziren bere soroetan kaleko zaborra botatzen eta harrezkero ia etenik gabe hondakinak bota eta bota jarraitu zuten sakon-bizkarrak berdindu eta etxea bera ere lurperatu arte.

Bizitzaren legeak ez du barkatzen eta Albitxuriko bizilagunak ere hil ziren, baina hor lurpean, baserri bateko historia luzea gelditu da.

Lehenari jarraituz, oraintsuan, industrialdea izendatu zutenetik, berdinketa lan handiak egin dituzte Albitxuri eta inguruetako lursailetan.

Orain hor dago Albitxuriko Industrialdea izeneko zabalune itzela. Lantegiak egiten hasi dira eta aurki industrigune garrantzitsua izango da.

Nekazaritzaren lekukoa industriak bereganatu du.
Ongi etorria, herritarren onerako bada!

Juan Mari Elustondo

Kexak	5
motz motz	10
gehigarria	13
kiRoIAk	20
aGenda	24

MENDAROTARREI

Mendaroko Gazte Asanbladakook makina bat lan egin dugu baina, zertarako?

Agirre bertsolariak, geuk antolatutako bazkari baten agurrean, "hurrengo urtean, kobratu gabe ere, gustora etorriko gara", kantatu zuen. Diruz ordaindu ezin diren bi gauza aurkitu zituelako: elkartasuna eta sasoia. Izan ere, gazteon arteko komunikazioa sortu dugu.

Herritarrei Udalak egin digun proposamenaren berri eman nahi diegu, anbulatorioaren goiko partea gaztetxea izatearena, alegia. Guk gure ezadostasuna helarazi diegu, eskainitako lokalak ez baititu baldintza minimoak betetzen. Mendaroko gazteen nahia ez dute aintzakotzar hartu, ez eskaera entzuteko orduan eta ondorioz, ezta erantzuteko orduan ere.

Herriko gazteen gehiengo handi batek, firmen bidez eta urteroko lana dela medio baieztatutako Gaztetxearen aldeko apostuari, herriaren iritziari kasurik egin gabe martxan jarri den hirigintza plan bat kontrajarri zaio; eta galdetzeko ordua da:

-Udaletxe berrian, harrokeriaz milioiak gastatu, gazteen eskakizunei erantzun ezinda geratzeko?

-Gure beharretarako egokiak izan zitezkeen eta herriarentzat sinbolikoak diren eraikuntzak bota, ordaintzerik izango ez ditugun eraikuntzak egiteko?

Herriaren iritzia kontuan hartuko duen politika bat bultzatu nahi izan dugu beti, agintarien eta herriaren arteko komunikazioa nolabait egituratu daitekeelakoan. Horretara dator Gazte Asanbladako ordezkariaren bat plenoetara joateko ideia. Baina gure Udaleko buruzagiak (edo buruzahagiak) gozo-gozo eta arazorik gabe agintzen ohitu arazi ditugu eta handi ustean erortzen hasiak daude. Horregatik, ez gazteok bakarrik, herriak ere oihu egin behar du, erosokerian erori gabe.

Oihu hori ahalik eta indartsuena izan dadin, edozeinek bere iritzia ematea gustatuko litzaiyuke eta Azpilgoetako buzoian laga.

A.U. 72.585.880

Mendaroko Gazte Asanbladaren izenean.

Urruzunoren begi ezkutua



Txosnetan, euskaldun berriak zaharrari: "Zergatik egiten duzue euskaldun zaharrek hainbeste erdera, hainbestetan?". "Ni guay naiz, nire lagunak dira guay" abestixa entzuten zaben bittartian. "Abertzale kaxkarra, erdaraz barra-barra", pankartaren azpizax zaozen. Albuari, sarriren "euskara da gure territorio libre bakarra" kantatzen zaban lagun talde batek.

"Yo ke sd" erantzun zion.

Amaia Urzelai

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatelea:
#: 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/taarren
ARGUARAT7_AILEA
Elgoibarko Izarra

LAGURTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENIARIA ElArzpuru
KAZETARIAE Irati Agirrezaldegi, ASIZ(Orbea Puauzazza
Andolu AgirregomezkortaMAKETATunLEA Bea Ansoia
ADIEMISTRAGGA Amaia Bodrigez GERDITZIA Jon FeCi
Uriguren KOLABOARTZAKEAK kinhea Ledosn, INInslor
Fuentes, Peim Mendizabal, Juan M. EluslondQ, Alberto
Ansuailegi, Edume O16ao, Gotzon Arrieta, Jon Peli
Uriguren. Lorea Perez deAlbeniz, Jokin Martinez. Olga
Unzilla, Montse Arregi. Juanrto Gorostiza, Jon
Gurrubmga, Jon Funi,AinhoaAndonegi, Kokoe K.E. eta
Urruzuno LT.. AEALEKO ESAERA ZAHARRA G012.011
Garalaren fihumlik tGPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TIRADA
4.025 aM LEGE GORGAILUA SS-1.038/92 ISSN 15391855

ELGOBAPSOZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak dintz lagundrauko aldirakaria.



rr

411 kutxa
effiez

1. DANABAT
MPLAARDENTA

GOITI
GRUPo Gamdkei

EsTIYRTA



||> O Emakume batek Plaza Txiki ondoko kolunpioen egoera txarra salatu nahi du: "Kolunpioez gain, parkea bera ere oso egoera txarrean dago. Ikastolako umeak ibiltzen dira eskola orduetan, eta arratsaldeetan, bestelako umeak ere bai. Beraz, haur askok erabiltzen dute. Sanidade aldetik ere oso egoera kaskarrean dago eta Udalak arreta gehiago eskaini beharko liokeela uste dut", esan digu emakume honek.

Mutiko bat etorri zaigu BARREnera (duela gutxi), Ikastolara bidean, treneko zubiaren azpian, motor batek harrapatu eta lurrera bota zuela salatzen: "Lurrera bota ninduen eta hankan mina hartu nuen. Leku honetan ez dago semafororik. Ikastolako sarrerako eta irteerako orduetan udaltzainen bat egoten da bertan, baina ordu horietatik kanpo ez, eta arriskua berdina da. Semafororen bat ipini beharko litzateke", esan digu mutil honek.



∨

Santa Klara eta herriaren erdigunea batzen dituen pasadizoko heldulekuak armiarma sarez beteta daudela esan digu emakume batek: "Nazka ematen du arrimatzeak ere. Umearekin joanez gero, ahateak ere ezin izaten ditugu ikusi, ez zikintzearren. Ez al dago mangerarik hori garbitzeko? Norbaitek ardura hori hartu beharko luke".



Barreak, lurrak eta barreak



Mikel Alberdi, 17 urte kartzelan egin dituen elgoibartarra

"Egun erdia pasiaran eta denboraplanuen eta beste erdia, orde"

Imajina dezagun une batean mundutik erretiratzeko gaituztela eta hamazazpi urte beranduago berriro ere etxe atarion lagatzen gaituztela. Gogorra izango litzateke, ezta? Antzerako zerbait gertatu zaio Mikel Alberdi: 38 urterekin espetxeratu zuten eta hamazazpi urte beranduago bueltatu da Elgoibarrera. 17 urte hauetan Caranbanchel, Alcalb, Herrera, Nanclares, Tenerife, Córdoba, Asturias eta Sontarderko El Dueso espetxeak ezagufu ditu. Astebete bakarrik darama etxean eta oraindik "aterriatu" gabe dago. Bizitza osoa dauka aurretik bizimodu berria egiteko.



Urterik onenak eramane al dizkizu espetxeak?

Ez, kartzelan pasatutako urteak ere onak izan direla uste dut, esperientzia ona izan da. Piska bat gogorra egiten da, dudarik gabe, baina gauza asko ikasten diran ere. Ez dago baloratzerik urte onenak ala txarrenak izan diren. Bizi garen bitartean, denak dira urterik onenak.

Zer ikasi duzu kartzelan?

Hainbeste jenderen artean bizi izatea, psikologia unibertsitate bat da. Positibotzat jo dezaket. Askok ikasi dut kartzelan.

"Ezin dut baloratu nire bizitzako urterik onenak kartiela pasatutakoan ala ez. Gogorra da, baina han ere ikasi egiten da"

Nolakoa da eguna kartzelan?

Bakoitzak bere erara pasatzen du eguna. Ni beti izan naiz liburu artean ibiltzekoa. Bizimodua ahal

den moduan zuzendu behar nuen. Egun erdia ikasketekin pasatzen nuen, arratsalde osoa zeldan gero nintekeen, ordenadorea neukan eta ingeniari informatikoa ikasten hasi nintzen. Gero, beste egun erdia, pasiarak emanez, eskulanak eginez edo denborapasekin... pasatzen nuen

Karrera amaitzeko asmoa al daukazu orain?

Ikusi egin behar zein bide hartzen dudan. Oraindik ez dakit ziur zer egingo dudan.

Lagunek asko idatzi al dizute?

Momentu batzuetan kanpotik sartzen den guztia ikaragarri kontrolatzen dute. Juezaren bitartez egiten dute, gainera. Hau da, guztia berari pasatzen diote: eskutitzak, aldizkariak. Lagunen kartak nik baino lehenago "txakurrak" irakurtzea ez nuen nahi izaten eta askotan, neu izan naiz eskutitzik ez idazteko esan izan duena.

Kartzelan lagunik egin al daiteke?

Bai, egin daiteke, baina zoritxarrez, oso portzentaje baxuak daude. Drogen menpean daude preso asko eta edozer gauza egiteko gai dira.


Norentzat izan da gogorragoa, zuretzat ala familiarrentzat?

Nahiz eta kartzelan ni egon, nire kasuan, Arrate, emaztea, izan da kartzela bizi izan duena. Aste guztia lanean pasa ondoren, ni nora, bera ere atzetik joaten zen. Guretzako baino, dispersioaren problema dela-eta, gogorragoa da familiarrentzako. Tenerifeko kartzelan egon nintzenean, adibidez, aste guztia pasa behar izaten zuen han. Igandean joan eta, astelehean eta ostegunean orduerdiko bisita egiteko, aste guztia han pasa behar. Horrek lana lagatzea suposatzen du, baxua, estantzia... gogorra da.

Kanpoko informaziorik jasotzen al zenuen?

Nahiz eta preso egon, kalean baino informazio gehiago dago. BARRENetik ere informazio asko jasotzen nuen. Ez nuen oztoporik BARREN jasotzeko.

,ak edo eskulanak egiten pasatzen tagailu aurrean, ikasten"



Kartzeiatik atera berria zaren honetan, zer da egin nahi izan duzun lehen gauza?

Hainbeste gauza dira... Espetxeratu aurretik HBko zinegotzia nintzen, 1969tik 84ra arte, politika mailan egiteko laga nituen gauzak egiten hasi beharra daukat. Ez zinegotzi bezala, baizik eta basetik, eta herria bultzatzeko ahaleginak egin. Piska bat "aterrizatzen" naizenean horri ekiteko asmoa daukat.

"Presoen askatasuna ez da "por arte de magia" etorriko, autodeterminazioa eta independentzia lortutakoan baizik"

Espetxetik atera bezain pronto, zein izan zen zure lehen pentsamendua?

Topiko bat bada ere, barruan gelditu zirenekin akordatu nintzen. Nire buruan herri hau aurrera ateratzea eta horren bitartez guztiak

etxera ekartzea zegoen.

Nola igaro dituzu espetxetik kanpoko lehen egunak?

Piska bat galduta. Nire edadekoak gehienak ezagutzen ditut. Beste asko, ordea, bidean gelditu dira, hilda. Gero, gazte jendea ezagutu ezinik ibiltzen naiz. Bazterrak nahiko aldatuta ikusi ditut, baina oraindik ez naiz gauza bakar batean finkatu. Orain dena nobedadea da.

Kaleko jendeak imajinatu al dezake kartzelako bizimodua nolakoa den?

Ezetz esango nuke. Hasieran ez zitzaidan holako gogorra egin. Aurretik lau urte eta erditan kartzelara bueltaka ibili nintzen, nire koinatua egon zelako. Kartzela zer zen ikusita neukan, banekien askatasun falta zela, baina barruko funtzionamendua oso desberdina da.

Bizimodu normalera bueltatzea gogorra egingo al zaizu?

Lortuko dudala uste dut, baina gaur bertan, gauzarik arruntenekin ere arazoak izan ditut. Goizean

jaiki, dutxara sartu eta izorratu egin zait. Konpontzeko, telefonotik dei egitea ere arraroa egin zait Horrelako gauza sinpleetara ere ohitu beharra daukat.

"Nahiz eta espetxean ni egon, nire emaztea, Arrate, izan da kartzela bizi izan duena"

Zer esango zenieke kartzelaratuta dauden hainbat eta hainbat euskaldunei?

Barruan geratu direnak irtengo dira, baina beste asko, bidean gelditu dira. Denak dira konziente barruan bakoitzak bere motxia eraman behar duela eta ahal den ondoen organizatu behar dela. Askatasuna ez da "por arte de magia" etorriko, autodeterminazioa eta independentzia lortutakoan baizik.

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Euskal Herriaren independentzia.

Telebistaren nazioarteko eguna izan da aste honetan

ZEIN MOTATAKO PROGRAMAK AUKERATZEN WITUZU TELEBISTAN?



CRISTINA IBARRA
30 urte, administraria

Pelikulak eta informatiboak. Gehien gustatzen zaidan programa "Chicas Marcianas" da. Normalean erdaraz ikusten dut telebista, ETB 2 eta Tele 5, batez ere.

BEATRIZ ZENDOIA
63 urte, etxekoandrea

"Goenkale", baina futbola-edo badao kendu eitxen dabe eta hasarrau eitxen naiz. Etxian ere burrukia eoten da programak elejitzeko, gizonak deportia nahi izaten dau-eta. •



IÑAKI FIGUEIREDO
44 urte, erizain laguntzailea

Denetariokak, hateg ere E113 2ko saio kulturalak eta La 2 katean, "National Geographic"-en dokumentalak. Goizetan tartetxo baten ikusten dut umearekin eta iluntzean, pare bat ordu-edo.

GORKA SUAREZ
29 urte, operarioa

Ez dot asko ikusten, baina gehixen La 2eko informatibua gustatzen jata. Etxian gehixen ETB 1 ikusten da, baina bestela euskeraz zein erderaz ikusten dot telebista.



ENRIQUE LUIS RODRIGUEZ
65 urte, jubilatua

Kirol saioak ikusten ditut telebistaz, kirol guztiak ditut gogoko. Kirol saioak non dauden, kate hori aukeratzen dut. ETB asko ikusten dut, kirolak ematen dituzte-eta.

DORLETA FERNANDEZ
10 urte, ikaslea

Marrazki bizidunak eta serie batzuk. Gehixen bat, erderaz ikusten dot telebista, Tele 5 eta ETB 2 katiak, batez ere.




I. URTEURRENA

2000ko azaroaren 24an, 66 urte • zituela hil zen **MIGUEL RUIZ DE GAUNA IBASTEZ DE GARAYO**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



noia ALDATU diren gauzak!



1977. urte inguruan ateratako erretratu da goian ikus dezakezuen. Angel M. Ansolak laga digu. Duela 25 urte inguru Olasoko industrialdean "Citroen"-en kontzesionarioa bakarrik zegoen. Gaur egun ere Angel Mari da jabea baina enpresa AnaLsa "Opel" da orain. Ondoan, eskabazio lanetan hasita zeudela nabaritzen da, gaur egun "Nissan" dena eraikitzen, alegia. Errepidea ere asfaltatu berria dago, ez baitago marra zuririk eta alboetara egun dauden farolik ere ez da agertzen.

Bestalde, hilerriaren ondoan, Olaso baserria ikus daiteke(1). Teilatua bakarrik ikusten zaion baserria "Lauko" da (2). Eskumatara, "Andikano" etxea (3) eta "Olasope" baserria (4) ikusten dira.



2001. urtean Olasoko poligonoa zeharo aldatuta dago. Ez dauka duela 25 urte zuen itxurarik. Industrialdea izanda, joan-etorri handiko lekua da eta ehundaka langilek egiten dute lan bertako negozio eta enpresa clesberdinetan. Guztira 107 enpresa eta 948 langile daude. Hilerriaren berritze eta handitze lanak zirela-eta, "Olaso" eta "Lauko" baserriak desagertu ziren. "Olasope" baserriaren lekuan, berriz, enpresak daude gaur egun. Bestaide, industrialdea eta herria lotzen dituen bidea zabaldu da Sigmako pabilioitik Olasoko poligono industrialderaino.

Ba RR en

ASTEKARIA



2002ko GIDAn azaldu nahi baduzu

zure negoziokotelefonoa
edo helbidea aldatu bada,

edo e-posta edo web orriaren
detuak gehitu nahi badituzu...

Deitu **943 743 704** telefonorct
[Andoitz

Etxeko obrak egiteko baimen eskaera sistema arindu nahi du Udalak

Udala jakinaren gainean ipintzeko, agiri bat aurkeztu behar da

Administrazioak herritarrekiko tratuan gehien egin ohi dituen jarduerak baimenak ematea izaten da, esaterako, obrak egiteko baimenak. Sarritan baimena eskatetik eman arte denbora tarte luzea pasatzen da. Beraz, prozesu hori arintzeko asmoz sistema errazteko asmoa azaldu du Udalak. Etxeko obra txikiak egiteko nahikoa izango da Udala jakinaren gainean ipiniz agiri bat aurkeztea.



Ohretako kontenedoreak ipiniz gero, asteburu eta jai egunetan kendu egin beharko dira.

kalean kontenedoreak ipini behar badira, aurrez jakinarazi behar da eta asteburu edo jaiegunetan kendu. Andamioak jartzeko ere gauza bera egin behar da.

Eskabide orriak

U d a l e k o erregistroan aurkeztu beharreko idatzian eskatzailearen datuak, obren deskribapena eta kokapena, aurrekontua, hasiera eta bukaera datak eta eskatzailearen sinadura agertuko dira.

Beti ere kontuan hartu beharko da obrek ez dutela eraikinaren bolumena aldatuko, ezta instalazioen erabilera eta

lokalen edo etxebizitzaren kopurua ere. Kanpoaldeko diseinua eta egitura ere bere horretan utzi beharko dira. Bestalde,


Agiriren bat gehitu behar izanez gero, Udalean bertan emango dizkiote argibideak interesatuari.

172 nitxo berri eraiki dituzte Olasoko hilerriar

Nitxo bakoitzak 215.000 pta. balio ditu eta dagoeneko eskaerak Udalean egin daitezke

Olasoko hilerria handitzeko obrak egin ondoren, hauek erabilizeko baldintzak aho batez onartu ziren joan den ostiraleko plenoan. Guztira lur azpiko 172 nitxo daude eta bakoitzaren kostua 215.000 pezetakoa da. Erosleak 99 urtez erabili ahal izango du nitxo hori.

Guztira 444 nitxo ditu Olasoko hilerriak, eta lehen fasean eraikitako 268 nitxoek badute jabea, beraz, aurki zabalduko da gainontzeko 172 nitxoak eskuratu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea. 2001ean erosiz gero 215.000 pezeta balioko dute nitxoek, eta hortik aurrera IPCaren arabera igoko da prezioa.



Guztira, 444 nitxo dande Olasoko hilerriar.

Eskaerak

Nitxo baten jabe egin nahi duten herritarrek eskaera Uda1 erregistroan aurkeztu beharko dute, salneurriaren %25 ingresatu izanaren agiriarekin batera. Ondoren, eskatzaile guztien artean zozketa egingo dute. Hala ere oraindik ez dute zehaztu zozketaren data.

Alkatearen esanetan eskaera kopurua oso altua da, beraz, Iehenbailehen eman nahi dituzte nitxoak. Behin nitxoak eskuratu gero, 99 urtez erabili ahal izango dira, eta ondoren erabileara epea

luzatzeko aukera ere izango da.

Nathalia Mellado kantari elgoibartarrak Bilbon abestuko du Manolo Escobarrekin



Manolo Escobarrekin bira musikala egiten ari da Nathalia Mellado abeslari elgoibartarra. Bidaian Bilbora iritsiko da eta, azaroaren 30ean eta abenduaren lean eta 2an, kontzertuak eskainiko dituzte Ayala antzokian. Koruetan eta dantzan laguntzeaz gain, abesti bat Escobarrekin berarekin bakarka abestuko du Nathaliak "Estaba enarnorado" kantua, hain zuzen ere. Manolo Escobar gogoko duzenok, edo Nathalia Mellado handien pare ikusi nahi duzenok aurrez sarrerak antzokira deituta eskura

ditzakezue, eta ordutegien berri ere bertan izango duzue. (Ayala antzokia: 944 212 260).



Abenduaren 7an piztuko dituzte Gabonetako argiak

Udaleko langileak, eguraldiak tarte uzten dienean, Gabonetako argiak ipintzen ari dira azken egunotan. Ohiko tokietan jarriko dituzte, eta guztira 60 inguru izango omen dira. Gabonetako irudiak ikusi ahal izango ditugu herriko kaleetan argiztatuta. Besteak beste, mahats-sortak, izarrak, elurretako panpina, jai otza... Urtero moduan, jai-zubia aprobetxatuz, abenduaren 7an piztuko dituzte lehenengoz argiak eta iluntzero, farolekin batera, argi emango duten bonbilet errege ondorenera arte jai giroan sartuta gaudela erakutsiko digute



10 lagunek umeentrako jolas eta kantak ikasiko dituzte Arigerak antolatutako ikastaroan

Euskara helduengandik haurrengana transmititzen dela kontuan hartuz, Arigera proiektuak kantu eta jolasen ikastaroa antolatu du. Guztira, 10 lagunek eman dute izena, eta astelehen eta ostiral eguerdian bilduko dira, denera S saio praktiko egiteko. Asteazkenean hasi zuten ikastaroa, Ana Carpintero pedagogo eta hezitzaile bergararraren eskutik. Helduei haurrekin edo seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea da ikastaroaren helburua. Ohiko kantez gain, korroan abestekoak edo jolasak ikasiko dituzte.

Cordon, Vilarchao, c.b. 1, EKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTIAZIOA, PINTURA OROKORRA.

___San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

Anchastegui



Sanyer

ERAKUSKETA ALMAZENA BULEGOA

Olaso Industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - EIGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

agenda

Azaroak 25 it andea

9:30 MENDI IRTEERA

Erlo- Xoxote

Irteera: Ikastolatik

Antolatzailea:

Elgoibarko Ikastola



Ikastolako G. mailako ikasleak BAHHEllien izan ziren bisitan

Joan den ostiralean, azaroaren 16an, Ikastolako 6. mailako ikasleak izan genituen BARRENen bisitan. Papera eta boligrafoa eskuetan, gure lan egiteko moduari buruzko hainbat azalpen jaso zituzten eta baita gaiderak egin ere. Kazetaritza gaia lantzen ari dira eta besteak beste, Diario Vasco egunkariaren bulegoetan ere izan direla aipatu ziguten. Guztiek batera argazkia atera eta aldizkariko berrietako protagonista izateko ilusioarekin agurtu genituen.

Santa Zezilia omendu zuten atzo, eguenean, Ikastolako gaztetxoek

Atzo, ostegunean, Santa Zezilia Eguenean, musikari gaztetxoek beraien zaindaria omentzeko aukera izan zuten. Ikastolako LHko lehenengo mailatik hasi eta 6. mailara arteko 190 ikasle atera ziren goizean goiz herriko kaleak musikaz alaitzera. Hainbat pieza ezberdinekin esnatu zituzten Elgoibarko bizitaganak eta arratsaldean ere izan zen siestatik musika doinuek esnatu zuenik ere. Musikari gaztetxoek ez ezik, herriko beste talde batzuetako kideek ere musika tresnaz zein ahotsez jantziko dituzte bazterrak asteburuan Santa Zeziliaren omenez.



Gaztainerre Eguna ospatu zuten Herri Eskolako haurrek

Hilaren 12an, astelehenean, Gaztainerre Eguna ospatu zuten Herri Eskolan. Umek hain gogoko duten festa honetan, aurrez aurkitu eta zaindutako barraskiloen lasterketa egin ondoren, gaztaina erre berriak banatu ziren haur guztien artean. Egun honetarako bereziki prestatutako bertso bat ere abestu zuten.

"Gaztainerre eguna guretzat ezagun afaltzeko prest daude pila bat euskaldun. Gure artean gara betidanik lagun honelako ohintrak mantendu ditagun "

BEROgAILUAK EHIGARRI BEREZIA



gehigarri berezia



ZU GOXO-GOXO eta NI BERO-BERO!


HOTZA, EURIA, ELURRA. AZKEN EGUNOTAN TEMPERATUREK BEHERA EGIN DUTE ETA EGURALDI HOTZA IZAN DA JENDEAREN AHOTAN MAI 113111 DEN GA1A. KALEAN HOTZ, ETA ETXEAN BERO GOXOTAN EGOTEA NAHI IZATEN DUGU, BA1NA HORI HORRELA IZAN DADIN, AURREZ AUKERATU BEHAR DUGU ETXEA ZEIN SISTEMAREKIN BEROTU NAHI DUGUN. BETI ERE KONTUAN HARTUTA ERA HONETAKO INBERTSIOA BIZI OSOAN ESKERTUKO DUGULA. BATEZ ERE ETXERA IRITSI, ETA BERO-BERO ATSEDEN HARTZEA NAHI DUGUN EGUN HORIETAN. HORRETARAKO EZ DAGO PROFESIONAL BATEN AHOLKUA BAINO B1DE HOBERIK.

LODOSO LEIHOAK

Ztoe ket<Itleilt4 eqiishalto tat44



- o PVCa
- o ALUMINIO TERMIKOA
- POLIURETANOA
- ALUMINIOA - EGURRA



Sigmako industria1dea, 2. so1airua • Tel/Faxa: 943 74 34 90



AILUAK
BEROG S.L. (I.L.W)

beroti lotzera

Negua iritsi ahala konturatu ohi gara etxeko epeltasunak duen garrantziaz. Baina beroa ez da berez sortzen, are gutxiago kanpoan hain temperatura bajuak daudenean. Hori dela-eta berokuntza sistema ezberdinak erabili behar izaten dira. Nahiz eta bakoitzak bere aukera egin, sarritan kalefakzioen inguruan zalantzok sortzen zthkigu. Beraz, adituengano jo dugu duda-muda horiek argitu asmoz.



Luis Zaldua

ZALDUA ITURGINTZA

Zenbatean behin egin behar dira errebisiaak?

Batetik, enpresa suministraloriak, Natur Gasek, 4 urtian behin, duan, inspektziva eitzeko obligaziva daka. Bestetik, usuarivak instalaziva ondo euki

bihar dau. Izan ere, alperrik galdu leike, tuberixak zintziilik geratu, relillak tapau... Horretarako, karneta dakan instaladore batek rebisiva ein bihar dau, kalentadoria, kalderia, fugak... ia ondo daozen beitzen ditxu, eta gero zertifikaua eman. Rebisio hau bi urtian behin eitzia komeni da, eta normalian instaladore ezagun batek eitzen dau.

Instalazio seguru batek zer behar du?

Gasa erregai arriskutsua da, beraz, segurua egoteko onena kalderia kanpuan ipintzia da, aukeria badao, behintzat. Bestalde, usaina dauanian, edo dudia euki ezker, beti konprobau bihar da ia instalazivan zeozer gaizki dauan.

HORMAN BEROGAILUAK

- 1 PANEL EN BIDEZKO BEROGAILUAK
- 2 BEROTZEN DUTEN MARGOLANAK

CAUNTEG CONFORT

Jausoro plaza, 6 • Tel./Faxa: 943 74 00 50 • ELGOIBAR



**ITURGINTZA
BEROGAILUAK**

Iturria tantaka duzula...

-er 659 77 29 32

Erretxindi z/g



Iturgintza

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi, 5 behea • Te1:943 74 10 82



**ZALDUA
Iturgintza**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi, 26 • Tel: 943 74 05 30

Biitor Nuñez

ONGI ITURGINTZA

Beroa aurrezteko zer egin behar da?

Lau faktorek dute eragina horretan: kalefakzioaren instalazioa egoki egitea eta material ona erabiltzea, ura berotzeko erabiltzen den sistema, erregaia eta kaldera mota, eta azkenik, etxearen isolamendua.



Instalazioa egin ondoren, zein dokumentu eskatu behar du bezeroak?

Hiru dokumentu jaso behar ditu bezeroak: Lehenengoan, hodian kokapena, radiadore kopurua eta gela bakoitzeko balore kalorikoa agertuko dira. Bigarrenean, kalderari buruzko datuak eta lehenengo informeko zenbait datu. Hirugarrena gas instalazioaren agiria izango da.

Andoni Gurrutxaga

HORMAN BEROGAILUAK

Zein da azken nobedadea berokuntza sistemetan?

Gure eskaintzen artian nobedaderik haundixena kuadruena da. Kuadruak paretetan ikusten dia eta adornorako daudela ematen dau. ikutzen ez dabanak ez dau igarriko berua ematen dabenik ere.



Zuen sistemarekin, beroa aurrezteko zer egin behar da?

Onea etxiak beti berotasun minimo bat eukitzia da, hozten laga ezker, berriz berotu artian gehixao gastatzen da.

Instalazio seguru batek zer behar du?

Guk dana kabljen bidez sartzen dou. Beraz, instalaziva segurua izateko kabljak ondo egotia komeni da.



SORALUZE
ARROZTEGIA



"Rotura"dun
aluminioa
WENT
modeloko
poliuretanoa
PVCa
• Bainuko
manparak
Ateak

FABRIKA:

Olasope, 66. ELGOIBAR
Tel/Faxa: 943 74 21 03

ERAKUSKETA:

Sanla Ana, B Tel: 943 74 36 34 EIGOIBAR
Goiko Kale, 16 Tel: 943 81 02 74 AZPEITIA

laga ezazu kalefakzioaren instalakuntza PROFESIONALEN ESKU

Adizkenez, etxean kalefakzioa instalatzeko arabakia harfu dugu. Baina, nork ipiniko ote dugu? Agian, Pellori esaten badiogu... Hura "manitas" bat da horrelako gauzetan eta urte askoan ibili da gainera mundu honetan. Horrelakoak egitea konponbide erraza da, merkeena gainera; baina kontuz, kalefakzioa instalatzea gai serioa da eta lan hori garantia osoarekin egiteko profesionalak daude. Ez laga edonori horrelakoetan eskua sartzen, "artista" asko dabil hor zehar-eta. Hona hemen profesionalak direla ziurtatzeko exijitu dezakezuna:

EXIJITU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Lantaleko batek, gubdenez, instalatzaile karneta eduki behar du.
- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak zehazten duen gutxienerako eperako Erantzukizun Zibileko segurua

Enpresari, egin behar duen lana (berogailuak, gasa) egin dezakeen ala ez jakiteko, agiria eskatu.

INSTALAZIOA AMAITU OSTEAN, profesionalak honako dokumentu hauek laga behar dizkizu:

- Instalazioak legalki egin direnaren agiriak.
- Aparatua garantiaren barruan dagoen bitartean behintzat, instalatzailearekin kontaktuan jartzeko helbidea eta telefonoa.



GIC (Garaia Inerzia Kontrola), 11M[
ISOLAMENDUAK

LEHIOAK ISOLATZEN DITUGU
Halzea, hotza, hautsa eta zaraten kontra

Olaso 27, 47. pabilioia • Tel: 943 74 43 54
(Ikus kontrazola, 28. orrialde)



informazioa

INTERESEKO TREFONOMIA

545111



OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkohol'ko Anommoak	943 74 C13 85
D.Y.A. (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendatglo Ospitalea	943 03 28 00
Odol Erwileak	943 74 39 36

TIARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

5451114

cuskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 57
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTEI AKUAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroidegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Harrolua	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65


IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
H.H.I. (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki Irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 22
ara	943 31 69 99

Eusko



Eusko Tren

ar OBUSAK

DONOSTIA-B11.110

Egunero

Denostia yd.a.: 5.45 06.45... 20.45

Elgoibarko 07.02 08.02... 22.02

*jak-pralark 7.15ean hasiko dira

BIIBODONOSTIA

Egunero

Bilbo 06.00 7.00... 20.00

Elgoibarko 07.23 08.23... 21.23

*jaiegunelan 8.00ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50 21.50

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunelan

Elgoibarko 07.25 08.25 10.25 21.25

jaiegunetan

Elgoibarko 08.25 09.25 10.25... 21.25

LARUNBAT GAUA

PES. AUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibarko	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	01.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibarko	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bidegora. Tel: 902 101 210.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 24 Escala
- 25 Escala
- 26 Fernandez
- 27 Yudego
- 28 Zabaleta
- 29 Etxeberría

(Errosariokaleur)

- 30 Escala
- 1 Bidasolo

GAUEZ

- Escala
- Escala
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberría

- Escala
- Bidasolo

FARMAZIAK

ESCALA, Rekakie, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparaniza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

25 igandea Eizagirre

545111

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Francisco 49-1 Tel: 943 74 11 80

Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

.4t4

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3²¹ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresa baterako ingeleseko irakaslea behar da. **ERREF: 65082/5.**

Debabarreneko enpresa baterako informatikako teknikaria behar da. **ERREF: 63334/1.**

Debabarreneko enpresa baterako komertziala behar da. **ERREF: 63331/1.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Ermuako lanpostu baterako langilea behar du. **ERREF: 64974/1.**

Debabarreneko enpresa baterako Gabonetako kanpaina egiteko 4 bultzatzaile behar dira. **ERREF: 64651/1.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko postu baterako gaklaragilea behar du. **ERREF: 61896/4.**

Durungaldeko enpresa baterako enkoformatzaile behar da. **ERREF: 62351/4.**

Laborategiko altzairuak egiten dituen Lea-Artibaiko enpresa baterako informatikako sistemen arimnistratzailea behar da. **ERREF: 64435/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Bergarako lanpostu baterako bilttegizaina behar du. **ERREF: 64857/1.**

Urola Kostako enpresa baterako ingeniari elektronikoa behar da. **ERREF: 64018/1.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durungaldeko lanpostu baterako margolaria behar du. **ERREF: 65128/2.**

Houtagai moduan sartzea eskatzen duen 901222901 telefonoro deitu edo 'longar-k' Elgoibarren dituen zentru lagunizoiile hauetoko batera deitu. Elgoibarko Institutua (Peto Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora RamOni 943 74 41 32) telefonoro.

Lana

ESKAERA

Emakumeak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko. **te 943 74 16 89.**

Zuzenbidean lizentziatuak etxebizitza komunitateen gestioa egiten du..E. **652 77 50 87.**

*Pedagogion lizentziatutako neskek haurrak zaintzen edo klase partikularrak emango lituzke. **11. 943 74 26 23.**

ESKAINITZA

*Euskaraz dakien emakumea behar da arratsaldeetan umeak zaintzeko. **Ir 615 78 44 15.**

• Emakumeak bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Justa. **a 943 74 35 05.**

+11eapaindegiaz arduratuko den 1. mailako ileapainizaille ofiziala behar da. Soldata ana. **tr 656 70 70 27.**

• Elgoibarren zabaldu behar den Comsum-erako jendea behar dugu. Interesatuak Santa Anako dendan edo Charterren izena eman dezakezue azaroren 30a baino lehen.

* Bitxiengrabatzailea behar da Eibar-Elgoibar ingururako. **21. 943 37 12 87.**

Bestelakoak

• Azaroaren 9an, udaletxeko arkupeetan, txotxongiloak ikusten ari nintzela, aterida aldatu zidan norbaitek. Nireak Aitor izena ipinirto dauka, urdina da eta koadroduna. Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala.

♦ "Billabong" kartera galdu nuen Pilar Ikastetxe inguruan. Berdea eta zuria da. Aurkitu duenak udaltzaingora eraman dezala,

*Gazteentzako idazmahai erregalatzendut. Egoera onean. **a 669 17 01 81.**

• Azaroaren 1 Oean urrezko pultsera bat galdu nuen. Aurkitu duena saritua izango da. **Tr 943 74 36 63.**

• Graduatutako betaurrekoak galdu nituen Leku Ederren, hilaren itan. **zr 943 74 07 84.**

• Kirol oinetakoak aurkitu ditut Sigmako aparkalekuan. **is 943 74 05 78.**

• Modem-ik gabeko ordenagailu poriatila erosiko nuke. Pentium II edo antzerakoa, CD-Rom eta barruko disketerarekin. **tr 607 57 57 28.**

• sUrriaren 20an, erfojua galdu nuen Sanla Ana eta Madala bitartean. **tr 943 74 31 43.**

• Fruta denda traspasatzen dugu, kamara frigorifiko eta guzti, atenditu ezin dugulako. **a 686 51 13 94,**

• Belarritako parea galdu dut "Fitxintxu" dendatik Pilarrera bitartean. Plaslikozko zorrotxo baten barruan daude. **ir 943 74 37 57.**

Lokalak

• Gazte koadrila bat gara eta lokol bila gabiltza Elgoibarren. **is 696 03 64 39.** Lucia,

• Gazte koadrila batek lokol bat kartuko luke alokairuan. **tr 639 99 30 11.**

• loicala alokairuan Sigman. 340 m². **zr 943 74 73 30.**

Partikularrak

+ Anatomiako klaseak hartu nahi ditut **605 71 79 69. Isa.**

• Unibertsitate mailako kontabilitaiea, gutun idazkera, nomina edo finantziatoko matemaikei klase partikularrak ematen dira. Esperiantziaduna. **tr 943 74 43 67. Carmen.**

Salerosketak

*Ford Sierra autoa salgai. SS-AK. 71.000 km. Egoera onean. **-2r 943 74 15 40.**

• "Dynamica" eskiak salgai. Fijazioak LOIX 1,85 cm. Botas Salomon SX42 38 talla. **tr 943 74 31 65.**

*Suzuki Santana autoa salgai. Samurari modeloa. VI mairikula du. Egoera onean. **tr 678 38 35 61/ 943 74 31 75.** Carmen.

• Fiat Uno autoa salgai. 90.000 km. Egoera onean. Prezioa eraliakitzeko. **tr 943 74 39 50.**

• Kerosenozko estufa salgai. **IT 943 74 21 33.** Francisca.

*Mercedes Vito TD furgoneto salgai. 97. urtekoa. 95.000 km. Lo egiteko ekipatua. **a 943 19 25 14.**

*Bulegoko materiala salgai: 3 mahai, 3 aulki eta armairua. 60.000 pkt. **.zr 677 51 05 97.**

• "Kanoway" matorra salgai. 2.000 km. **is 943 17 09 49** (Andres).

*Trukatutako RS1 motorra salgai. Prezio onean. Urtebete dauka. **tr 943 74 35 26.** tban.

*Seat Ibiza 1.2 GLX salgai. SS-AC. 75.000 pta. **1r 605 77 04 27.** Vanessa.

♦ 90eko bi ohe, armairu handi bal eta bi "mesilla" salgai. Ohe bat estreindu gabe dago. Eguerdian edo ilunizeon deitu. **str 943 74 24 57.**

Garajeak

*Garaje itxia salgai Arregitorren. Bi plazakoo. Prezio interesgarria. **tr 943 74 00 09.**

Etxebizitzak

• Pisua alokatuko nuke Elgoibarren. **te 636 16 61 59.** Joseba,

*Ebe bat alokatzen dut Jacan (Huescal. Eski denboraldian (abendutik apirilera). 6 pertsonentzat lekua dago. Garajea eta trasteroarekin. **2. 620 56 56 38**

• Etxebizitza salgai Ermuaranbide kalean. **a 943 74 27 74** (Lurdesl.

*Pisua alokatuko nuke. **1r 656 76 18 02.**

*Pisua alokatuko genuke Elgoibarren. Senaremazteak eta ume bat gara. **tr 943 74 33 77.**

*Familia batek pisua alokatuko luke Elgoibarren. **is 943 74 32 17.**

BEKAN

Ikerketa beka

Jose Migel Barandiaran Ikerketa Beka antolatu du Barandiaran fundazioak. Ikertzeko gaiak Euskal Herriko Arkeologia eta Etnografia izango dira. Epea: abenduak 31.

Ikerketa beka

KoIdo Mitxelena beka, Errenteriako Udalak antolatuta. Helburua: euskal kulturaren historia, arte, soziologia, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza, literatura, etnologia, zuzenbide eta, oro har, giza zientziei dagozkien ikerlanak sustatzea. Epea: abenduak 22.

JARDUERAK

Zinea

Kresala Zinema Klubaren programa. Abenduaren 3an, "Medianoche" Mitchel Leisen, 1939; abenduaren 10ean, "M, el Vampiro de Dusseldorf" Fritz Lang, 1931; abenduaren 17an, "Candilejas" Chrales Chaplin, 1951; abenduaren 26an, "Kattas City" Robert Altrnan, 1996. Proiekzio guztiak Kutxaren Arrasate Aretoan izango dira.

SAIMAK eta LEHIAKETAR

Literatura

Tene Mujika izeneko XIX, literatur saria, Debako Udalaren eskutik. Epea: azaroak 30.

Literatura

Hirugarren adina 3. Mundurako elkarteak antolatutako literatura lehiaketa. Epea: azaroak 30.

Pintura

X. Aterpe Taberna pintura lehiaketa. Artista bakoitzak obra bakarra aurkez dezake. Gaia eta teknika libreak dira. Epea: abenduak 5.

LANA

Medikuntza

Auzitegiko Medikuen Kidego Nazionalen sartzeko hautaketa probetarako deialdia. 19 plaza izango dira: 8 Andaluzian, 8 Katalunian, 2 Galizian eta 1 Kanariar Irletan. Epea: azamak 24.

Port Aventura

Honakoak dira eskainitako lanpostuak: saltzailea, jolasetako laguntzailea, langile laguntzailea (igerilekua, atrakzioak, harrera eta aparkalekua, garbitasuna), sukaldari-burua, sukalde eta jangelako langileak, biltegiko langilea, sustatzaileak, irudi eta soinu operadoreak, ikuskizunetako laguntzailea, mantenimenduko laguntzailea... Epea: abenduak 14.

Udaltzaina

Tolosako Udalean udaltzain plaza bat betetzeko lehiaketa-oposizioa. Eskola graduatua, 2.hizkuntza-eskakizuna, gidatzeko **B** baimena izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta A+B eta BPT motakoak karrerako funtzionario izendatu aurretik. Epea: abenduak 4.



◆ Zorionak Rocheli, azaroaren 24an 11 urte beteko dituelako. Guraso, lagun eta ahizparen partez. Egun zorionsua posal



◆ Zorionak Ioni, bihar, hilak 24, 4 urte beteko dituelako. Familiako partez.

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

◆ Zorionak Julen Zabaletari eta Horten San Martini beraien urrezko ezkon ezteiek. Elgoibarko senideen partetik.

Zorionak Amaia Konderi, hilaren 20an 8 urte beteko diuelako. Lagunen eta bereziki, Alazneren partez.

* Zorionak Unairi, hilaren 21ean 7 urte bete zituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak Julen Crespori, hilaren 21ean 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta arrebarren partez.



◆ Zorionak Mireni, astelehen, hilaren 26an, 8 urte beteko dikiaki. Abizpa Iratiren eta gurasoen partez.



Zorionak Borjari, gaur 10 urte bete dituelako. Gurasoen eta Nerearen partez.



Zorionak Borjal Ze sute zenduen, ez ginala akordauko bailarako mutil latorrenan unebeietziakin? Ondo pasau zure 18 udaberrixak, "gizonbrol Ikusi arte.



◆ Zorionak Davidi, hilaren 22an khien urtea bete zuelako. Guraso, osaba-izeba eta aitona-amonen partez. Berezi-ki, leire, Andoni, Sonnya eta Sarairen partez.




◆ Zorionak Ilenoni eta Unai Fori. Ahatuta geundelakoa alat la fitxak sortzen ditzuzuen zuek ere. Koadrilako partez.

AZA.RCDAK

28 eguaz ena
21 :30ean

DIPOSITIBA EMANALDIA

"PERTSIAN ZE HAR"
Fernando Oregi



PINTURA ERAKUSKETA
Mari Jose San Millán

ARGAZKI ERAKUSKETA
Maria Jesus Etxeherria

TOLETXE

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

agenda

2001-XI- 23

23 BARIXAKUA

19:00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur Etxean

Antolatzailea: Morkaiko M. E.

Abenduarett 2ra arte

22:00 BIDEO FORUMA

Filma: "Solas"

Hizlaria: Eskarne Larrañaga

Kultur Etxean

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:00 MUS TXAPELKETA

Gaztetxean (500 pezeta)

Antolatzailea: Gazte Asanblada



24 ZAPATUA

19:00 PARROKIKO

ABESBATZAREN KONTZERTUA

San Bartolome parrokian

19:30 ITXAROPENA

ABESBATZAREN KONTZERTUA

Udaletxeko arkupeetan

22:30 KONTZERTUA

"Berri Txarrak" eta "Kokein"

Gaztetxean (500 pezeta)

25 DOMEKIA

9:00 MENDI IRTEERA

Balerdi gaina (Aralar)

Irteera: Mendaroko estaziotik

Izen ematea Ormola tabernan. 500 pta.

Antolatzailea: "In Leike"

10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN
KALEJIRA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN
SANTA ZEZILIA KONTZERTUA
Herriko Antzokian

28 EGUAZTENA

21:30 DIPOSITIBA EMANALDIA

Fernando Oregi "Pertsian zehar"

Toletxe tabernan

30 BARIXAKUA

19:00 ARRASATE MUSIKALEKO
HEZIKETA BEREZIKO IKASLEEN
KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan



ZINE
kluba



"El Circulo"

Zuzendaria: Jafar Panahi.

Antzezleak: Fere,shteh Sadr Orafai, Maryiam Parvin Almani,
Nargess Mamizadeh.

Emakume batek neskatxa bat erditu benī du, haina notizi ona behar lukeenak ez du poztasunik sortu familian, senarrak seme bat nahi baitzuen. Gertakari hau abiapuntuzat hartuz, Irango emakumeek jasaten duten errepresio bortitza eta eskubide falta erakusten ditu Panahi zuzendariak hainbat emakumezko protagonistaz baliatuz. Istorio batetik bestera pasatuz, zirkulu bat osatzera iritsiko da. Veneziako Zinemaldian Urrezko Lehoia saria irabazi zuen tilm honek.

IRTEERAK

Saint Laryra Morkaikorekin

Morkaiko M. E.-ak Saint Laryra (frantsez Pirineoa) mendi irteera antolatu du Konstituzioko zubirako. Datorren abenduaren 5ean, asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan izango da irteera ordua. Prezioa 7.500 pezetakoa da (6,500 pta. bazkideek). Prezioaren barruan ostatua bakarrik dago sartuta. Saint Laryn egin daitezkeen ekintzak: mendi irteerak, eskiatu (eski estazioa abenduaren 6an irekitzen dute) edo ur beroetan bainuak hartu, norberaren kontura. Izena emateko azken eguna azaroaren 30a da. Morkaikoren telefonoa: 943 74 02 97. Posta elektronikoa: morkaiko@hotmail.com.

IKASTAROKAK

Panpin manipulazio ikastaroa

Taupada Antzerki Taldeak panpin manipulazio ikastaroa antolatu du. Beñat Lefever irakasleak emango ditu klaseak azaroaren 23, 24 eta 25ean taupadaren lokalean. Ordutegia honakoa izango da: ostiralean eta larunbatean, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Igandean 10:00etatik 14:00etara. Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 36 55 edo 653 013 813 (Jose Mari) telefonoetara deitu.

TKAPEILKETAK

Mus Txapelketa

Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatutako Mus Txapelketa gaur, hilak 23, jokatuko da Gaztetxean, 22:00etatik aurrera. Izena emateak 500 pezeta balio ditu eta 21:30etatik 22:00etam bitartean eman daiteke Gaztetxean bertan. Partidak 8 erregetara eta 8 hamarrek 3 usteletara jokatuko dira. Irabazleek garaikurra jasoko dute.

Mikel Alberdiri omenaldia

Zapata, 24

12:30 Mikel Alberdiri omenaldia

Plaza Handian

Ondoren, poteoa Balzola anaiak trikitilariekin

15:00 Bazkaria

Ikastolako Frontotan

Tiketak: Jai-Alai eta Txuri-Beltz tabernetan,

Prezioa: 2.000 pezeta

22:30 Kontzertua

"Kokein" eta "Berri Txarrak"

Gaztetxean

Sarrera: 500 pezeta

Osteguna, 29

19:00 Hitzaldia

Gaia: Euskal presoen egoera

Kultur Etxean

KONTZERTUAK

Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu domekan, hilaren 25ean. Goizeko 9:45ean hasiko da kalejira herriko kaleetan. Eguerdiko 12:30ean hasiko da kontzertua Herriko Antzokian. J.A. Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Teatro Montecarlo" (A. P. Perelli), "Suite on Russian Dances" (Terry Kenny), "Jaialdia" (I. Urkizu), "Olympic Fanfare and Theme" (J. Williams) eta "El pajar Choui" (Txomin Mujika). Pieza guztiak estrainezoko joko dira eta azkena, "El Maro Choui" Bandak eta "Duo Plaentzik" batera joko dute. Arratsaldeko 14:30ean bazkaria izango da Karakate Elkarte.

"Lucia y el Sexo"

Zuzendaria: Julio Medem.

Antzezleak: Paz Vega, TristU Ulloa, Najwa Nimri.

Lucia, Madrileko jatetxe batean lan egiten duen kamarera gaztea da. Bere mutilaguna idazlea da eta 6 urte elkarbizitzen egin ondoren, arrastorik laga gabe desagertu da. Ditu arazoak ahazteko asmoz, Mediterraneoko irla lasai batera joatea erabaki du. Irlako haize eta eguzki goxoez lagunduta, iraganeko bikote hizitzaren pasarterik ilunenak gottoratzen eta arakutzen hasiko da. Urruti dagoen idazleak nobela batetako pasarte debekatuak irakurtzen lagako balio moduan sentituko da Lucia.



zinea

KA RTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Lucía y el sexo"

23. barixakua: 22:15

24. zapata: 19:31-22:15

25. domekia: 19:30-22:15

26. astelehena: 22:15

"El Emperador y sus loeuras"

25. domekia: 16:30

"El (.7reulo" tZine Kluha

29. eguena: 21:30

"Otsoen Ituna"

30. barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Ni una

23. barixakua: 19:30-22:15

24. zapata: 17:00-19:45-22:30

25. domekia: 17:00-19:45-22:30

26. astelehena: 19:30-22:15

27. martitzena: 19:30-22:15

28. astelehena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"Itiaa ,a Lora"

23. barixakua: 19:30(f-22:15)

24. zapata: 19:30-22:15

25. domekia: 19:30-22:15

26. astelehena: 19:30-22:15

27. martitzena: 19:30-22:15

BERGARA, Novedades

23. barixakua: 22:15

24. zapata: 19:30-22:15

25. domekia: 19:30-22:15

26. astelehena: 22:15

"Spy Kids"

24. zapata: 17:00

25. domekia:

"La habitaeitin del hijo"

29. eguena: 20:00 (Zine Kluba)

BARRRENek ez du gona hartzeko erabakirik
aldaketen erantzukizunik



A

ste honetako erretratu zaharra Jose Antonio Osorok, bandako zuzendariak laga digu. 1923ko abuztuaren 23an, San Bartolome jaietan, ateratakoa da, Kultur Etxearen aurrean.

Hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara, zutik:

Maximo Sasieta, Benigno Opacua, Isaac Azpiazu, Angel Gisasola, Alberto Mas (Eibarko errefortzua), Francisco Etxeberria, Ignacio Iriondo, "Zumai Txikixa" (Eibarko errefortzua), David Aizpiri, Galo Iriondo,

Agustin Zuloaga (Eibarko errefortzua).

Eserita: Jose Ma Ciaran, Laureano Ansola (zuzendari ordea), Canuto Gabilondo, Ignacio Bereciartua (zuzendaria), Victor Guisasola, Balbino Arrieta (Eibarko errefortzua) eta Roman Guisasola.

Lurrean eserita:


Juan Salaberria, Marcelo Iriondo, Francisco Muguruza, Justo Barrutia, Asensio Bereciartua, Luis Zubiaurre, Cesareo Sanguitu, Pepe Arano eta Jose Ansola.

(Ez daukagu inor bizi denaren berririk)




ESKERTZA

2001eko azaroaren 10ean, 73 urte zituela hil zen ANDRES CEARSOLO AGUIRREren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



TRUK; puB



Murgilda zaitez
beti gustako izan dazun
TRUK PUBeko
giroan



San Frantzisko, 24
Tel. 943 742 621

inaugurazioa:
gaur, ostirata, 19:00etatik 21:00etara



GLASHER

ALTZAIRU INOXIDABLEZKO BURLETEAK
leihoa isteaz bat, tentsatu
eta zirrikitu guztiak
estaltzen dituztenak,
haizea, hotza,
hautsa eta zarata
eragotziz.



PISUZKO 3 ARRAZOI

1 IPINTZEKO AZKARRA eta GARBIA

BEROGAILUETAN AURREZPENA

3 BEHIN-BETIKO IRAUPENA

INPERMEABILIZANTEEN ATALEKO SAILA



Terrazak, esikialak, baloi-harriak,
OAK'dituzula?

SOLUZIOA DAUKAGU SIKU-SIKUAN



TRANSITABLEAK
ELASTIKOAK
TRANSPARENTIAK
DEKORATIBOAK

gias contra



Olaso 27, 47. pabilioia

943 743 094 • 9

n'T

(71